

Programaren datu orokorrak

Departamentua:	07 - OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA
Atala:	0701 - Ogasun eta Finantzako Zerbitzu Orokorrak
Programa:	010 - Ogasuneko eta Finantzetako Zerbitzu Orokorrak
Funtzionala:	920 - Administrazio orokorra

Programa mota:

Departamentuaren egitura

Misioa:

Proposatzea, zuzentzea eta berrikustea Foru Aldundiaren 2015-2019 aldiko helburu estrategikoak lortzeko zerga eta finantza arloko politikak. Horretarako, haiek ezartzeko beharrezkoak diren bitartekoak jarriko dira, herritarrek zerbitzu publikoaz duten balorazioa egokia izatea lortuz. Laguntza teknikoa ematea, departamentuko unitateek departamentu helburuak lortze aldera, betiere zerbitzu haren efizientziari lehentasuna emanez.

Egoeraren diagnostikoaren eboluzioa:

Ogasun eta Finantza Departamentuak Ekonomia Itunean araututako zerga sistema kudeatzen du, eta zerbitzu publikoak mantentzeko beharrezkoak diren baliabideak jartzen ditu eskura. Herritarrengandik gogobetetze maila handia lortu du ematen dituen zerbitzuengatik. Plantillaren zati handi bat bitarteko langileak dira edo lan bizitzaren amaieran daude. Departamentuak arreta berezia jartzen du abangoardiako baliabide teknologikoak ezartzeko estrategia teknologikoaren definizioan.

Beharraren eboluzioa:

Departamentuaren antolaketa eta funtzionamendua modernizatzeko bidean aurrera egiteko beharrari erantzuten dio programak, esleitutako helburu estrategikoak betetzeko eskura dauden baliabideak gero eta eraginkorragoak izan daitezen. Horrez gain, departamentuko unitateek normaltasunez funtzionatzeko behar diren zerbitzuak emateko beharrari ere erantzuten dio.

Nori zuzendua:

Departamentuko langileak, eta herritarrak.

Estrategia del programa

1. Baliabideak (inputak):

Zuzendaritzak departamentuaren eremuan erabakiak hartzeko eskura dituen baliabideak, eta zerbitzu orokorren arloan beharrezkoak diren prozesuak gauzatzeko dauden baliabideak.
Diru baliabideak.
Informatika baliabideak.

2. Garatu beharreko

- * Bultzatu departamentuaren Plan Estrategikoa.
- * Identifikatu interes taldeak. Identifikatu antolaketaren, giza baliabideen eta baliabide teknologikoen arloko beharrak.
- * Kudeatu langileak.
- * Kudeatu aurrekontuak eta kontratuak.
- * Sustatu Zerga eta Finantza Administrazioan bitarteko elektronikoak erabiltzea.
- * Sustatu informazio trukaketa.
- * Egin espedienteen izapidetze arrunta (barkatzeak, salaketak, ondare erantzukiunak...).
- * Erregistroa eta agiritegia.
- * Agiriaren tratamendua.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

- * Departamentu antolaketa malgua, gizartearen eta bertako interes taldeen eskaerekiko sentibera. Beharretara egokitutako plantilla.
- * Aholkularitza.
- * Kontratazio administratibotik eratorritako ondasun eta zerbitzuak.
- * Administrazio Elektroniko zeharkako zerbitzuak.

- * Informazioa trukatzeko zerbitzuak.
- * Datuak babesteko politika.
- * Izapidetutako espedienteak.

Programaren arau esparrua:

Administrazio, zerga eta finantza arloko legeria.

2015-2019 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

Helburu estrategikoa: Gure gizarte ongizate eta kohesio eredua sendotzea


Proiektu estrategikoa:

Urteko helburua: Iruzur fiskala saihestea eta jarraitzea

Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2019-ko Aurreikuspena	2019-ko Erreala	Agintaldiko helburua
Iruzuraren aurkako borrokaren emaitzek zerga-bilketan duten pisua	Ehunekoa	7,80	8,80	7,62	8,30

Joera

Iruzuraren aurkako borrokaren emaitzek zerga-bilketan duten pisua – Ehunekoa



Memoria

Programak iruzurraren aurkako helburua betetzen laguntzen du, sistema elkarreragileak eta informazioa trukatzeko sistemak garatuz:

a) Eusko Jaurlaritzaren, EJI Eren, IZENPEren, foru aldundien eta sozietate informatikoen arteko elkarreragingarritasuna: elkarreragingarritasunerako NISAE nodo berria ezartzeko prozesuan, eta Bizkai eta Arabako Ogasun eta Finantza departamentuekin adostuta, aplikatiboa egokitzeko proposamenak egin dira, eta Eusko Jaurlaritzaren eskaera berriak tramitatu dira denbora errealean (Foru Ogasun honek baimenduz edo errefusatuz), EJIren eta foru aldundien artean adostasun proposamen berriak trukatu dira Eusko Jaurlaritzarenak diren eta ziurtagiri fiskalak modu elkarreragilean kontsumitzen dituzten 400 prozedura inguru erregularizatzeko, eta NISAEren erabiltzaileei PFEZaren zerbitzua jarri zaie eskura. Bertan, errenta aitorpenaren datuak ez ezik, egozpenei eta errenta salbuetsiei buruzko datuak ere eskura ditzakete.

b) Eusko Jaurlaritzako Lan Ikuskaritzak, Estatuak eta Foru Aldundiek adostu dituzte erakunde horien artean trukatu beharreko informazio hornidurak.

Memoria

c) NISAEren bitartez DGTren bi zerbitzutan sartu ahal izatea eskatu da (pertsoneko edo entitate baten ibilgailuak, eta ibilgailuen datuak).

d) INEren, EUSTATEN eta GFAko Ogasun eta Finantza Departamentuaren arteko hitzarmena. Aurtengo otsailean, Bizkaiko eta Arabako Ogasun eta Finantza Departamentuekin adostu da departamentu bakoitzak hitzarmen bera izenpetzea INEren eta EUSTATEkin, eragiketa estatistikoetarako zerga informazioaren hornidurari dagokionez. Hitzarmen berri horrekin sistematizatu eta homogeneizatu nahi izan dira eskumen estatistikoak dituzten bi entitateen informazio eskaerak.

e) INEren eta GFAko Ogasun eta Finantza Departamentuaren arteko hitzarmena. Hitzarmen hau lotuta dago INETik erroldari buruz jasotzen dugun informazioarekin. Akordio batera iritsi da INEri elkarrekin eskatzeko sarbidea eman dezala lurralde historiko bakoitzeko zergapeko guztien helbideei buruzko erroldako web zerbitzuan sartzeko. Hitzarmen horri esker, datuak eskuratuko dira estatuaren gainerako lurraldean bizilekua duten zergapekoen helbideei buruz. Gaur egun, AEAT bakarrik sartu daiteke web zerbitzu horretan.

f) Informazio lagapen berriak formalizatzea. Informazio lagapen berriak izenpetu dira Urnieta, Oiartzun, Oñati, Zizurkil, Orio, Asteasu, Azkoitia eta Azpeitiko udalekin, baita Trafiko Zuzendaritza Nagusiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin (Ertzaintzarekin) ere. Behin Orio sartuta, dagoeneko Gipuzkoako udal guztiek izenpetu dute hitzarmena. Bestalde, informazio lagapenak erregularizatu eta zabaldu dira Andoain eta Eibarko udalekin eta Foru Aldundiko bi departamentu hauekin: Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuarekin, eta Ekonomia Sustapeneko eta Landa Garapeneko Departamentuarekin. Lagapen hauek ere hitzartu dira: Urola Kosta zerga-bilketara bideratutako informazio lagapenaren aldaketa. JEZaren datuak sartzeko; Alokabide Emantzipaziorako laguntza programara zuzendutako lagapen berria; Gipuzkoako Jabetza Erregistratzaileak -katastroko datu babestuetarako sarbidearen formalizazioa; eta Ekonomia Garapeneko, Nekazaritzako eta Landa Inguruneko Departamentua JEZari buruzko datuen lagapena aldatu eta eguneratzea.

g) Lankidetzaren hitzarmena izenpetu dute Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Espainiako Jabetza eta Merkataritza Erregistratzaileen Elkargoak, merkataritza sozietateen titulartasun erreala merkataritza erregistroaren bidez kontsultatzeko.

Adierazlea betetzean izandako desbideratzearen justifikazioa: 2019an iruzur fiskalaren aurkako borrokan azaleratutako zorraren zenbatekoa %2,7 igo da. Aldiz, zerga-bilketa likido teorikoak gehiago egin du gora (+%5,1). Horregatik, iruzurraren aurkako borrokan emaitzek pisu gutxiago dute bai aurreko ekitaldiarekiko eta bai helburuarekiko.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Elkarreragingarritasun sistemak implementatzea eta garatzea, eta informazioa trukatzeko

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	110.474,28	110.474,28	102.595,88		
1.1 Ekintza					
Lankidetzaren eta koordinazioaren, zerga iruzurraren aurkako borrokan buruzko datu garrantzitsuak trukatzeko	55.237,14	55.237,14	51.297,94		100,00

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
--	-----------------------	--------------------------	-----------	---------------	-------------------

1.2 Ekintza

Lankidetzan aritzea beste erakunde eta agente batzuekin, iruzurraren prebentzioari eta pertsekuzioari buruzko datu garrantzitsuak lortzeko

55.237,14

55.237,14

51.297,94

100,00

Helburu estrategikoa: Gipuzkoako gobernua atzera asmatzea


Proiektu estrategikoa: Gobernantza onaren estrategia

Urteko helburua: Departamentua administrazio modernoaren erreferentzia bihurtzea, antolaketa eta berrikuntza teknologiaren alorrean, herritarrentzako arretara eta iruzurraren aurkako borrokara zuzendua


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2019-ko Aurreikuspena	2019-ko Errealak	Agintaldiko helburua
Langileen prestakuntzako ordu gordin kopurua	Kopurua	7.771,00	7.600,00	6.072,00	7.600,00
Bitarteko elektronikoen erabilpenak, aurrez aurrekoen ordez, erabiltzaileei dakarkien aurrezpenaren kalkulua	Euroak	78.982.300,00	80.000.000,00	78.536.400,00	80.000.000,00
Elektronikoki erregistratutako tramite portzentajea	Ehunekoak	74,25	75,00	77,08	75,00

Joera


Langileen prestakuntzako ordu gordin kopurua – Kopurua



Bitarteko elektronikoen erabilpenak, aurrez aurrekoenen ordezt, erabiltzaileei dakarkien aurrezpenaren kalkulua – Euroak



Elektronikoki erregistratutako tramite portzentajea – Ehunekoa



Memoria

Erabakiak hartzeko prozesuen garapena. Aginte koadroa

2018. urtearen amaieran, hausnarketa prozesu bat abiatu zen Kudeaketa, Ikuskaritza eta Idazkaritza Teknikoa arloan. Hausnarketa hori Zerga-bilketan egin zen lehenago. Helburua zen oparoaldi ekonomikoan antolakundeak gogoeta bat egitea etor litekeen krisialdiari aurre hartzeko neurriak bilatzearren. Hainbat bileratan aztertu da zer jarduketa egin ditzakeen departamentuak dagozkion eskumen, funtzio eta prozedurak krisi egoera batean aplikatzeko. Ondorioak prestatu dira, ekintza zehatzak identifikatuz eta haien garapenaren arduradunak eta exekuzio epeak zehaztuz.

Antolamendu malgua eta zeharkakoa

1) Formazioa: onarturik geratu da Ogasun eta Finantza Departamentuaren 2019ko Berariazko Prestakuntzako Plana (10 ikastaro aurreikusi dira).

2) Intraneta: Departamentuko zerbitzu eta langileentzat, informazioa, jarraibideak eta eskuliburuak jarraitu dira argitaratzen departamentuko intranetean.

3) Talentua departamentura erakartzearen, UPV/EHUrekin, Deusturekin, Mondragon Unibertsitatearekin eta Tecnunekin elkarriketak izaten ari dira Gipuzkoako unibertsitatetan ikasten ari direnei departamentuan lan egin eta bertan karrera profesionala egiteko aukerak eta baldintzak ezagutarazteko. Orain arte ekintza hauek gauzatu dira: 8 ikasle praktika akademikoak hasi dira egiten departamentuan; EHUrekin formazio proiektu

Memoria

bat zehaztu da Ikuskaritzan garatzeko, eta Deustuko Unibertsitateari beste proiektu bat eskaini zaio; parte hartu da Irteera Profesionalei buruz EHUK antolatutako 2019ko Jardunaldietan, eta departamentuak GFAko enplegu publikoari buruzko aurkezpenak egin ditu bai EHUn bai Donostiako Deustuko campusean; unibertsitateen, Merkataritza Ganberaren eta Ekonomialarien Elkargoen sarea erabili da departamentuko enplegu publikoari buruzko informazioa eguneratua zabaltzeko; unibertsitateen sareaz baliatuta, lurraldera etorritako langileen araubideari buruzko informazioa zabaltzeko (kualifikazio handiko langileei egoitza Gipuzkoan kokatzen dutenean aplikatzen zaien araubide berezia), eta bilera bat izan da unibertsitateekin haren erregulazioaren berri emateko; azkenik, departamentu honetan jarduteko baldintzei buruzko liburuxka bat prestatzen jarraitu da, eta helburua da zabaltzea sare sozialetan, foroetan eta unibertsitateetako posta elektronikoko taldeetan.

4) Euskara:

Itzulpena: dagoeneko amaitu da kontratazio baldintza agirien ereduetan ageri den euskarazko terminologia Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen euskarazko bertsiora egokitzeko prozesua. Orobat, lege horren hustuketa terminologiko bat egin da Aldundian kontratazio arloan jarduten duten lan taldeen eta entitate hornitzaileen euskarazko lana errazteko. Bestalde, euskarara itzuli da bai errenta zergaren kudeaketari buruzko barne gida bat, herritarren arretakoek erabiltzekoa, eta bai Aldundiaren Kontu Orokorrari buruzko dokumentazioa.

Hizkuntza berdintasuna: departamentuan zabaltzeko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak 2019. urterako aurreikusten dituen ekintzak ezartzeko jarraibideak. 2018ko azaro eta abenduan egindako Euskaraldia ekimenaren balorazioa aurkeztu zaio politika horizontaleko departamentu batzordeari. Departamentuko Hizkuntza Planean jasotako ekintzei dagokienez, honako hauek jarri dira abian: esku-hartze linguistikoa bat egin da Udal Zergen Zerbitzuak eta Zentsu Atalak Errotaburu 2n dituzten jendaurreko moztadoreetan langileen arteko elkarrizketetan euskararen erabilera sustatzeko; harrerako hizkuntza protokoloa berrikusi da; departamentuko eta zerbitzuetako bileren hizkuntza protokoloa prestatu da; errenta kanpainaren kudeaketaren hizkuntza ikuspuntua landu da; euskarriak sortu dira zergadunek departamentuarekin dituzten harremanetan euskararen erabilera sustatzeko; Ulerrizketa Programaren barruan, abian jarri dira astean ordubete euskara ikasteko saioak; euskarazko trebakuntza mintegien programa prestatu da 2019-2020 ikasturterako; eta, azkenik, departamentuaren 2020rako Hizkuntza Plana aurkeztu da. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak proposatu du Ogasunarekin euskaraz programa garatzea hurrengo errenta kanpainaren barruan, Gipuzkoako udaletako hizkuntza berdintasuneko zerbitzuekin lankidetzan (Udalekin programa).

5) Berdintasuna: parte hartu da Berdintasuna, Gizartea eta Etorkizuna izenburupean GFAko berdintasun organoak Tolosan antolatu duen Biltzarrean. Parte hartu da lantokiko sexu jazarpenari buruzko inkestaren emaitzak baloratu dituen Batzorde Teknikoan, gaiari buruzko protokolo bat prestatzeko; Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasun saio bat gauzatu da: «Gipuzkoako Foru Aldundiaren araudian genero eraginaren ebaluazio txostenak hobetzeko proposamenen hausnarketa eta eztabaida» izenekoa; Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoarekin batera, «Kontratu eta dirulaguntzetan berdintasuna lortzeko klausulen katalogoa» berrikusi da.

6) Administrazio elektronikoa

Departamentuaren 2019ko Informatika Plana onartu da, eta IZFErekin dagozkion kudeaketa esleipenak formalizatu dira. EBATZI aplikazioa. Departamentuak lanean jarraitzen du Gobernanzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuarekin eta IZFErekin, proposatu diren hobekuntzak garatu eta ezartzeko. Orobat, elkarlanean ari gara interesduna bertararuta egiten diren jakinarazpenak eta agente bidez egiten direnak aplikazioan integratzeko. Gobernanzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko Modernizazio Zerbitzuarekin batera, 39/2015 eta 40/2015 Legeak garatzeko erregelamenduaren zirriborroa aztertu da.

Ordezkaritza: Hobekuntzak sartu dira ordezkarien erroldak kudeatzen dituen aplikazioan.

Ordezkaritza profesionalen kanpaina bukatu da eta zerga ordezkarien errolda arazteko beste kanpainekin jarraitzen da (zendutakoak, ordezkari profesionalak, ordezkariak inaktiboak, autoordezkariak).

Helburuaren betetze maila

Adierazleen exekuzio mailari erreparatuta, helburua modu egokian bete da. Prestakuntzako ordu gordinen kopuruaren adierazlea desbideratu da 2019an Ogasuneko Goi eta Erdi Mailako Teknikarien EPEak deitu direlako.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Erabakiak hartzeko prozesuak egitea. Aginte-koadroa

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	55.237,14	55.237,14	51.297,96		
1.1 Ekintza Departamentuaren plan estrategikoaren garapena eta abiaraztea	27.618,57	27.618,57	25.648,98		100,00
1.2 Ekintza Interes taldeekiko harremanen garapena	27.618,57	27.618,57	25.648,98		100,00

2. Jarduketa ildoak:

Antolaketa malguan eta zeharkakotasunean oinarritutako lan-eredu berri bat abian jartzea

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	82.855,71	82.855,71	76.946,92		
2.1 Ekintza Proiektua partekatzea antolakundeko kolaboratzaile eta langileekin	27.618,57	27.618,57	25.648,98		100,00
2.2 Ekintza Informazio eta lankidetzaren baliabideen inplementazioa, partaidetza bultzatuta	55.237,14	55.237,14	51.297,94		100,00

3. Jarduketa ildoak:

Administrazio Elektronikoa. Plan informatikoa. Betebehar fiskalak betetzea, iruzurraren aurkako borroka eta kudeaketa finantzario eraginkorra erraztera bideratutako informazio sistema integratuak garatzea. Zerga proiektua. Kontua proiektua. Big Data proiektua. SII eta Ticket Bai proiektuak. Aurrekontuak, ildo estrategikoak bultzatzeko tresna gisa

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	5.949.355,70	7.276.909,93	7.081.144,59		

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
3.1 Ekintza Identifikazio eta ordezkartza sistemen, komunikazioen eta jakinarazpen elektronikoen garapena eta mantenimendua departamentuarentzat.	1.209.077,28	1.547.617,28	1.492.680,04		100,00
3.2 Ekintza Harreman telematikoen zabalpena pertsona juridiko eta nortasun juridikorik gabeko entitate guztien artean	55.237,14	55.237,14	51.297,94		100,00
3.3 Ekintza Departamentuko garapen informatikoaren koordinazioa eta babesa	4.685.041,28	5.674.055,51	5.537.166,61		100,00


Departamentuaren jarduketa operatiboa

Urteko helburua: Beharrezko laguntza teknikoa ematea departamentuko unitateek era egokian lan egin dezaten


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2019-ko Aurreikuspena	2019-ko Erreala	Agintaldiko helburua
Epeen barruan ebatsi eta izapidetutako expedienteen portzentajea	Ehunekoa	93,98	97,00	100,00	100,00
Lokalak mantentzeko gastu lanpostu kopuruaren baitan	Euroak	2.740,00	2.900,00	2.740,00	2.900,00

Joera

Epeen barruan ebatsi eta izapidetutako expedienteen portzentajea – Ehunekoa



Lokalak mantentzeko gastu lanpostu kopuruaren baitan – Euroak



Memoria

1) Langileak

a) Puntualki kudeatu dira langileen ordezkapenak eta lanpostuen zerrendako aldaketak, eta departamentuko unitateak laguntza jasotzen ari dira aurreikusitako moduan.

2019ko datu metatuak: 74 langile mugimendu izan dira, eta beste 13 tramitazio fasean daude (beste pertsona batek betetako plazetan). Gainera, 13 kontratu aldatu dira eta aldi baterako 2 programatan 2 luzapen egin dira (3 lruzuraren aurkako borrokan eta 2 Foru Auzitegian). Horrez gain, abian jarri dira aldi baterako beste 2 programa (EBA eta Kontabilitatea).

b) Lanpostuen Zerrendako zazpi aldaketa argitaratu dira.

c) Goi mailako teknikarien 2018ko EPEa: oposizio-fasea bukatuta, 28 postuko esleipena abiarazi da.

2) Bulegoak

Udal Zergen Zerbitzua Okendotik Errotaburu 2ra ekartzeko lanak bukatu dira, baita zerbitzu horretarako bulegoak egokitzekoak ere. Hori horrela, epe onargarri batean amaitu da materiala erosi, obrak egin eta unitateak beste toki batean kokatzeko prozesua: 2017ko irailean hasi zen, departamentuaren egoitza nagusiaren ondoko Errotaburu 1 eraikinean bi solairu erosi zirenean.

3) Aurrekontua

Urteko kontratazio plana aurreikusitako eran bete da.

Nabarmetzen da Errotaburu 2ko dorreko fatxadetan eraberritze lanak egiteko kontratua formalizatu eta exekutatu dela. Guztira, konkurtso bat adjudikatu eta formalizatu da urteko errenta kanpainaren barruan GFeko errenta mekanizatuko bulegoetan laguntzeko zerbitzu-erakunde; Bitarteko propioen mandatuak: bitarteko propioei (IZFE SAr) 17 mandatu egitea onartu da, Bitarteko propioei (IZFE Sari) 17 mandatu egin zaizkie; 66 kontratu txiki formalizatu dira; 5 kontratu luzatu dira; eta kontratu bat aldatu da.

Ebaluatu da kontratuak 2018an izan duten exekuzioa, eta, bereziki, hizkuntza alorreko eta genero berdintasuneko baldintzak betetzeari dagokionez.

4) Espedienteen tramitazioa

Departamentuari dagozkion xedapenak eta espedienteak garaiz tramitatzen eta bultzatzen ari dira.

647 foru agindu onartu eta izapidetu dira, zuzendarien 690 ebazpen eta idazkari teknikoaren 109 ebazpen, bai eta Diputatuen Kontseiluaren 101 erabaki ere. Hiru foru arau proiektu izapidetu dira aurrekontu gaiekin lotuta. Zehapenak barkatzeko 408 eskaera ebatzi dira eta beste 100 izapidetzen ari dira; sarrera eman zaie zerga iruzurreko 207 salaketari; eta 5 perituren izendapena (hirugarren peritu) izapidetu da. Orobat, hainbat udalerritako katastro ponentziak aldatzeko prozedura abiatu da; eta ondare erantzukizuneko bi espediente izapidetzen ari dira.

5) Hitzarmenei dagokienez, honako hauek formalizatu dira:

Memoria

Ondasunak premiamenduzko prozeduran besterentzeko mandatuarekin lotutako hitzarmena.

Zuzenbide publikoko diru-sarrerak bide exekutiboan biltzeko hitzarmena.

Ticketbai Proiektua garatzeko hitzarmena.

Espainiako Jabetza eta Merkataritza Erregistratzaileen Elkargoarekin izenpetutako hitzarmena, titulartasun errealak kontsultatzeko.

Nafarroako Zerga Ogasunarekin izenpetutako lankidetzak hitzarmena sententzia bat exekutatzearen ondorioz kudeatu beharreko zerga-bilketa koordinatzeko.

Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAUarekin izenpetutako hitzarmena Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren eta Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAUren urteko kontuen auditoretza batera kontratatatzeko.

6) Zerbitzu orokorrak

Zerbitzu hauek behar bezala betetzen dituzte beren zereginak: erregistro eta artxiboa, biltegia, erreprografia, liburutegia, datu-bilketa eta itzulpena.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Departamentuko langileria politika inplementatzea

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	109.369,54	109.369,54	101.569,95		
1.1 Ekintza					
Departamentuko prestakuntza plana	27.618,57	27.618,57	25.648,98		100,00
1.2 Ekintza					
Departamentuari esleitutako helburuetara hobekien egokitzen den funtzio publikoko ereduak aztertzea eta eskumeneko departamentuari proposatzea.	27.342,38	27.342,38	25.392,49		100,00
1.3 Ekintza					
Ordutegiaren kontrola, ordezkapenak, egokitzapenak eta departamentuko unitateen laguntza kudeatzea.	54.408,59	54.408,59	50.528,48		100,00

2. Jarduketa ildoak:

Lokalak eta instalazioak konpondu, artatu eta mantentzea

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	2.143.760,46	3.121.484,42	2.259.907,43		

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
2.1 Ekintza Lokal eta instalazioak mantentzeko zerbitzuak ematea	994.318,57	1.972.042,53	1.071.118,25		100,00
2.2 Ekintza Kanpora ateratako zerbitzuen efizientziaren kontrola (segurtasuna, garbiketa)	1.120.718,57	1.120.718,57	1.162.114,27		100,00
2.3 Ekintza Departamentuko unitateak bulego zentraletan birkokatzeko lanak kudeatzea	28.723,32	28.723,32	26.674,91		100,00

3. Jarduketa ildoak:

Aurrekontua kudeatzea

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	110.474,28	110.474,28	103.277,93		
3.1 Ekintza Kontratazio espedienteen tramitazioa eta kontrola	55.237,14	55.237,14	51.297,94		100,00
3.2 Ekintza kontabilitate tramitazioa eta exekuzio kontrola	55.237,14	55.237,14	51.979,99		100,00

4. Jarduketa ildoak:

Espedienteak tramitatzeko efikazia eta efizientzia hobetzea

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	189.614,28	189.614,28	161.844,60		
4.1 Ekintza Barkatze espedienteak tramitatzeko aplikazio berria.	27.618,57	27.618,57	25.648,98		100,00
4.2 Ekintza Departamentuko xedapenen eta esleitutako espedienteen tramitazioa eta bultzada	161.995,71	161.995,71	136.195,62		100,00

5. Jarduketa ildoak:

Genero ikuspegia departamentuen plan estrategiko guztietan sartzeko saioa orokortzea

Ordainketa kredituak					
	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	2.142.825,62	2.177.825,62	2.033.299,68		
5.1 Ekintza Sarrera-irteerak erregistratu eta agiriak artxibatzeko zerbitzuak	441.897,12	441.897,12	410.383,59		100,00
5.2 Ekintza Biltegi, kopia eta liburutegi zerbitzuak	441.897,12	441.897,12	410.383,59		100,00
5.3 Ekintza Datuak hartzeko zerbitzuak	1.148.557,10	1.183.557,10	1.109.936,59		100,00
5.4 Ekintza Itzulpen zerbitzuak	110.474,28	110.474,28	102.595,91		100,00

GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

Programaren genero garrantzia: Ertaina

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Pertsona helduak

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Diru-sarrerak eskuratzea

Beharraren eboluzioa:

Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako II. Foru Planak jasotzen duen genero zeharkakotasuna aintzat hartuta, hainbat ekintza garatu dira erakundearen barruan aldaketa garrantzitsuak sustatzea ahalbidetzeko, erakundean diharduten pertsonen berdintasunaren eta bizitzaren iraunkortasunaren aurrean aldeko jarrera sustatzeko helburuaz. Ildo horretan, jarraipena eman behar zaio hasitako lanari erdietsitako lorpenak finkatzeko eta, batez ere, betetzeke dauden erronkei ekiteko.

Programa honetan helburu espezifiko bat mantentzen da: kontratazioa berdintasun politikak bultzatzeko elementu gisa kudeatzea.

Kuantifikazioa: 18.877,60 (% 0,16)

Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua	Esleitutako adierazlea
Or 1. Prozedura administratibo guztietan genero ikuspegia txertatu	(% 100,00)	Or 1.1. Departamentuko politika, plangintza, programa eta jarduera guztien planifikazioa, inplementazioa eta ebaluazioa genero ikuspegitik egitea.	100,00	Sexuaren aldagaia eta lortutako emaitzen genero azterketa txertatzen dituzten azterketa eta ikerketen ehunekoa (egindako azterketa eta ikerketa guztiekiko).
		Or 1.4. Barneko zein kanpoko komunikazio inklusiboa, genero estereotiporik gabekoa, emakume eta gizonak berdin ikustaraziz eta hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista eginez.	100,00	Berariazko trebakuntza jaso duen berdintasunerako koordinazio foru egituretan parte hartzen duten pertsonen ehunekoa (egitura horietan parte hartzen duten pertsona guztiekiko).
		Or 1.6. Foru kontratu eta diru laguntzetan berdintasunerako klausulak txertatu eta beren jarraipena egitea, bai aurretiko balorazioa egiten denean eta bai, bereziki, lana betetzeko baldintzetan.	100,00	Berdintasunerako klausulak jasotzen dituzten kontratu eta diru-laguntzen ehunekoa (egindako kontratu eta diru-laguntza guztiekiko).

HIZKUNTZA BERDINTASUNEN PLANA

Beharraren eboluzioa:

Arlo orokorreko langileen 100eko 81ek, gutxienez, 2., 3. edo 4. hizkuntza eskakizuna du egiaztatua. Euskara zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza gisa sustatzea da arlo horren eginkizuna, neurri zehatzen bitartez, hala nola, komunikazio orokorrak euskaraz bidaliz, "Euskaraldia" ekimena bultzatuz, edo bileretan erabiliko den hizkuntza zehazteko protokoloak prestatuz.

Kuantifikazioa: 318.239,03 (% 2,66)

Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua
2.1. Bezeroekiko/Herritarrekiko harremana idatziz zerbitzua eskaini edo produktua emateko orduan	(% 7,14)	2.1.1. Idatzizko harremanak bezeroekiko/herritarrekiko	100,00
3.2. Komunikazio bertikala eta horizontala	(% 32,14)	3.2.1. Informaziorako/Komunikaziorako tresnak.	100,00
		3.2.3. Erakundearen barne harremanetarako idatziak	100,00
		Argitaratutako dokumentu guztiak elebitan egondo dira. Gero eta dokumentu gehiago euskaraz sortzeko pausoak emango dira	100,00
		Eztabaida foro baten sorrera, hizkuntza irizpideen aplikazioaren inguruan	100,00
		Euskaraz bidaltzea langileentzako komunikazio orokorrak	100,00
3.3. Komunikazio bertikala eta horizontala ahoz	(% 10,71)	3.3.1. Erakundearen barruko lanbileretako ahozko euskararen erabilera	100,00
		Euskaraldia ekimenaren ezarpena	100,00
		Bileretako hizkuntza protokolo baten sorrera	100,00
3.4. Baliabide informatikoak	(% 14,29)	3.4.1. Euskarazko bertsioen instalaziokopurua	100,00
		3.4.2. Euskarazko bertsioen erabilera horizontala idatziz	100,00
		Monitorizazio tresna informatikoen erabilera eta datu tratamendua euskaraz egin ahal izatea bermatuko da.	100,00
4.2. Laneko prestakuntza	(% 7,14)	4.2.2. Ikastaroen kudeaketa	100,00
5.1. Administrazioa	(% 7,14)	5.1.1. Administrazioekiko idatzizko harremanak	100,00
		Hizkuntza irizpideak finkatuko dira dena delako erakundeekiko harremanei eta koordinazioari begira.	100,00

Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua
5.3. Bestelako harremanak (aliatuak, taldeko enpresak, erakunde kolaboratzaileak)	(% 14,29)	5.3.1. Beste entitateekiko idatzizko harremanak	100,00
		Proiektuaren komunikazio atalean hizkuntzen arteko erabilera orekatua bermatuko da.	100,00
		Euskararen sustapena udal sektore publiko osoarekiko harremanetan	100,00
		Euskararen sustapena hizkuntza kalitateko ziurtagiria duten entitateekiko harremanetan	100,00
6.1. Estrategia: Hizkuntzen kudeaketa kudeaketa-sistema orokorrean integratuta dago	(% 7,14)	6.1.1. Hizkuntzen kudeaketarako planteamendua, epe luzerako ikuspegiarekin eta epe ertain edota laburrerako helburuekin, eta horren ebaluazioa	100,00

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak Capítulos gastos	Hasierako aurrekontua Ppto Inicial	Behin betiko Aurrekotua Ppto Definitivo	Baimendua Autorizado	Xedatua Dispuesto	Gauzatzea Ejecución	Gauzatze % % Ejecución
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	2.774.998,00	2.774.998,00	2.564.897,47	2.564.897,47	2.564.897,47	92,43
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	3.568.940,00	3.942.480,00	3.842.797,08	3.842.589,48	3.801.035,37	96,41
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	6.343.938,00	6.717.478,00	6.407.694,55	6.407.486,95	6.365.932,84	94,77
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES	4.550.029,00	6.516.767,19	6.515.730,03	6.407.898,02	5.605.952,12	86,02
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL						
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	4.550.029,00	6.516.767,19	6.515.730,03	6.407.898,02	5.605.952,12	86,02
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total	10.893.967,00	13.234.245,19	12.923.424,58	12.815.384,97	11.971.884,96	90,46

PROGRAMAREN GAUZATZEAREN LABURPENA / RESUMEN DE LA EJECUCIÓN DEL PROGRAMA

Planen zenbateko osoa, kapituluka Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak Créditos de pago		Konpromiso kredituak Créditos compromiso	
	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	487.330,52	2.077.566,93		
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	1.520.433,71	2.280.601,66		
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS				
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES				
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	2.007.764,23	4.358.168,59		
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS				
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES	5.304.221,12	301.731,00		
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL				
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	5.304.221,12	301.731,00		
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS				
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS				
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras				
Guztira / Total	7.311.985,35	4.659.899,59		
Gauzatze gradua / Grado de ejecución: %	55,25	35,21		

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA					
Sarrerren kapituluak Capítulos de ingresos	Hasierako aurrekontua Ppto Inicial	Behin betiko Aurrekotua Ppto Definitivo	Gauzatze Ejecución	Gauzatze % % Ejecución	Gastuari lotutakoak Afectados a gasto
1. ZUZENEKO ZERGAK/ IMPUESTOS DIRECTOS					
2. ZEHARKAKO ZERGAK/ IMPUESTOS INDIRECTOS					
3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK/ TASAS Y OTROS INGRESOS	772.206,00	772.206,00	1.957.262,30	253,46	
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES					
5. ONDARE SARRERAK/ INGRESOS PATRIMONIALES					
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	772.206,00	772.206,00	1.957.262,30	253,46	
6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA/ ENAJENACION DE INVERSIONES REALES					
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL					
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital					
8. AKTIKO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS					
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS					
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras					
Guztira / Total	772.206,00	772.206,00	1.957.262,30	253,46	

Programaren datu orokorrak

Departamentua: 07 - OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA
Atala: 0710 - Ogasun Zuzendaritza Nagusia
Programa: 100 - Zerga Administrazioa
Funtzionala: 932 - Zerga sistemaren kudeaketa

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Kudeatzea pertsonen kontribuzioak, horretarako haien diru ahalmenera egokituta, herri zerbitzuak mantentzeko nahikoak izan daitezkeen baliabideak sortze aldera.

Egoeraren diagnostikoaren eboluzioa:

Zerga sarrera gehienak borondatezko eran egiten dira. Borondatezkotasun hori errazteko, departamentuak teknologia berriak eta kalitatezko zerbitzuak jartzen ditu erabiltzaileen eskura, nahiz eta hobekuntzak ere egin daitezkeen. Hori hala izanik ere, Gipuzkoan badago oraindik pertsegitu beharreko iruzur portzentaje bat.

Beharraren eboluzioa:

Erraztasun berriak proposatu eta ezartzea, bereziki aplikazio informatikoak eta informazioa, pertsonen eta entitateen zerga betebeharrak borondatez betetzeko.

Nori zuzendua:

Gipuzkoan bizi edo jarduten diren pertsonak eta entitateak.
Beste esku hartzaile batzuk: entitate laguntzaileak.

Estrategia del programa

1. Baliabideak (inputak):

Giza baliabideak. Diru baliabideak. Informatika baliabideak. Birkontratazioak.

2. Garatu beharreko

Zerga obligazioen betetzea errazten duten zerbitzuak, eta obligazio horien betetzea kontrolatzeko jarduketak, betiere bitarteko informatiko modernoak erabilia.
Aholkularitza zerbitzuak. Zerbitzu telematikoak. Kanpainako zerbitzuak.
Urteko egiaztapen planaren prestaketa eta ezarpena.
Foru ogasunen baterako jarduketa
Informazio trukea
Datuen kudeaketa

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Egiaztapen Plana.
Foru Ogasunen Plan Bateratua.
Informazioa trukatzeko hitzarmenak.
Obligazioak betetzea errazten duten tresna telematikoak.

Programaren arau esparrua:

Zerga, merkataritza, zibil, lan eta zigor arloko araudia. Legeria administratibo orokorra.

2015-2019 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

Helburu estrategikoa: Gure gizarte ongizate eta kohesio eredua sendotzea


Proiektu estrategikoa:

Urteko helburua: Iruzur fiskala saihestea eta jarraitzea


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2019-ko Aurreikuspena	2019-ko Erreala	Agintaldiko helburua
Iruzzurraren aurkako borrokaren emaitzek zerga-bilketan duten pisua	Ehunekoa	7,80	8,80	7,62	8,30
IN.28.03N - Egindako jarduketan betetze maila, egiaztapen planean aurreikusitakoaren aldean.	Ehunekoa	97,30	100,00	109,80	100,00
IN.28.05N - Ikuskaritzak azaleratutako zenbatekoaren betetze maila, egiaztapen planean aurreikusitakoaren aldean.	Ehunekoa	135,10	100,00	120,40	100,00

Joera


Iruzzurraren aurkako borrokaren emaitzek zerga-bilketan duten pisua – Ehunekoa



IN.28.03N – Egindako jarduketan betetze maila, egiaztapen planean aurreikusitakoaren aldean. – Ehunekoa



IN.28.05N – Ikuskaritzak azaleratutako zenbatekoaren betetze maila, egiaztapen planean aurreikusitakoaren aldean. – Ehunekoa



Memoria

2019ko martxoaren 1eko Ebazpenaren bidez (zk.: EB-OG-DH-2019-0022), Ogasuneko Zuzendari Nagusiak Ikuskapen Plana onartu zuen, eta 2019ko martxoaren 4ko Foru Aginduaren bidez (FA-OG-2019-0135) onespina eman zion Zerga Egiaztapenetako Planari (FA-OG-2019-0135). Bi planak Diputatuen Kontseiluan eta Batzar Nagusietan aurkeztuta daude.

Iruzuraren aurkako Plan Bateratua 2019ko martxoaren 22an onartu zen.

Onetsitako planak ekitaldian zehar exekutatu dira.

Azkenik, dagoeneko prestatu eta Batzar Nagusietan aurkeztu dira iruzurraren aurkako 2018ko jarduketaren emaitzak.

Adierazlearen desbideratzea: "Iruzuraren aurkako borrokaren emaitzek zerga-bilketan duten pisua" arrazoi honengatik ulertzen da: 2019an iruzur fiskalaren aurkako jarduketaren ondorioz azaleratutako zorraren zenbatekoa +%2,7 igo den bitartean, aitorpen/autolikidazioen ondorioz lortutako zerga-bilketa likido teorikoa +%5,1 handitu da. Horren ondorioz, iruzurraren aurkako borrokaren emaitzek zerga-bilketaren gainean duten pisuak behera egin du (aurreko urteko %7,80tik %7,62ra hain zuzen), eta puntu batera baino gehiagora geratu da helburutik (%8,80).

Aurrekontuaren exekuzioa egokia izan da.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Egiaztapen Planak definitzea, neurgarriak diren emaitzen konpromisoekin, eta garatzea; horien barnean daude, halaber, Ikuskaritzako urteko planak eta iruzurraren aurkako borrokaren baterako planak

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	945.169,18	759.910,49	767.693,41		
1.1 Ekintza					
Zerga Egiaztapenerako Urteko Planaren definizioa eta garapena	494.796,35	394.701,76	399.704,60		100,00
1.2 Ekintza					
Ikuskapen Planaren definizioa	246.298,19	196.250,89	197.954,86		100,00

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
1.3 Ekintza					
Iruzuraren aurkako plan bateratuaren definizioa	204.074,64	168.957,84	170.033,95		100,00

2. Jarduketa ildoak:

Gainerako lurralde historikoekin iruzurraren aurkako borrokaren datuen neurketa berrikustea eta harmonizatzea

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	402.521,81	319.460,03	322.311,96		
2.1 Ekintza					
Iruzuraren aurkako Plan Bateratuaren emaitzen txostena prestatu	119.627,54	114.371,74	114.192,14		100,00
2.2 Ekintza					
.....	282.894,27	205.088,29	208.119,82		100,00

Helburu estrategikoa: Gipuzkoako gobernua atzera asmatzea


Proiektu estrategikoa: Gobernantza onaren estrategia

Urteko helburua: Departamentua administrazio modernoaren erreferentzia bihurtzea, antolaketa eta berrikuntza teknologiaren alorrean, herritarrentzako arretara eta iruzurraren aurkako borrokara zuzendua

Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2019-ko Aurreikuspena	2019-ko Errealak	Agintaldiko helburua
Elektronikoki erregistratutako tramite portzentajea	Ehunekoak	74,25	75,00	77,08	75,00

Joera

Elektronikoki erregistratutako tramite portzentajea – Ehunekoa



Memoria

Nabarmentzekoak dira berrikuntza teknologikoko proiektu hauek:

Zergabidea proiektua

1. fasea 2023an amaitzea aurreikusi da. Hona hemen zer lan egiten ari diren:

o Identifikazio datuak: erabiltzaileari datu pertsonalak eta profilekoak aurkeztu nahi zaizkio, maila desberdinetan:

-Oinarrizko datuak: NAN, izena, zerga helbidea, posta elektronikoa, jakinarazpenetarako helbidea,

-840 eta 036 ereduetatik hartutako datu zentsalak, landuak eta eguneratuak. Zergadunaren profileko argazki bat aurkeztuko da. Baita zerga egoera mailan ere.

o Eredu zentsalen aurkezpena: aurrenik 030 eredu, eta gero 036a.

o Ez-egoiliarren ereduaren aurkezpena. 210 eta 211 ereduak, Zergabidean 2019ko urriaz geroztik.

o Gainerako ereduaren aurkezpena. Oinordetzen eta dohaintzen aitopenerari emango zaio lehentasuna (671 eredu).

Aurreikusi da maiatzak 2020 data produkzioarako. Horren ondoren, ondare eskualdaketen ereduak, matrikulazioarenak eta noizbehinka aurkeztekoak diren beste batzuk jorratuko lirateke.

Kontua proiektua

Proiektuaren irismen globala mugatzeko lana egiten ari da.

Big Data proiektua

a) Martxoan abian jarri zen erlazioen proiektua. Ustiapena egiteko, INKURIUSa instalatu da (HOSTeko erlazioen grafoak marratzen dituen geruza, informazioa ematen duena). Modulua abiarazten ari da erabiltzaileei alta emateko segurtasun-politika kudeatzeko.

b) BIG DATA BIH sisteman

Big data proiektuak BIH sisteman dagoen informazioa ustiatzeko bitarteko egokiena dira. Aztertzen eta baloratzen ari dira 3 negozioen exekuzioak izan dituen emaitzak, eta egindakoa doitzen ari da.

Zerga-bilketako Zuzendariordetza hasita dago, jada, BIHko informazioa ustiatzen kredituak enbargatzeko.

c) Orobat, Big DATA proiektu pilotu berria abiatu da faktura faltsuak egiten dituen enpresak detektatzea ahalbidetu duten aldagaien mapa eratzeko.

BEZaren BIH sistema

Maiatzean, zentsua kargatzen eta mantentzen hasi da hiru Foru Ogasunen artean, eta 2018ko urtarrilaren 1era bitarteko fakturak berreskuratzen hasi dira hiru administrazio horiek.

ZAEari dagokionez, zain gaude Zerga Administrazioako Estatu Agentziak kontu tekniko batzuei buruz noiz erantzungo, faktura trukea eta zentsuaren mantenimendua egiten hasteko. Horiei erantzuten dienean, ikusi beharko da nola trukutzen diren aurreko epealdietako fakturak, oraingo, 2017tik gaur artekoak.

SILICIE. (Zerga berezien BIHa)

Bizkaiak erabaki du garatzea zerga berezien BIHa kudeatzeko plataforma, eta Arabak adierazi du harekin bat egiteko asmoa duela. Gipuzkoaren kasuan, erabakia izan da BEZaren BIHa garatzeko jokatu zen moduan egitea. Hiru foru aldundiek eta garapen enpresak proiektua baloratu eta gero, lehenik eta behin AEATk

Memoria

proiektuari buruz argiraturako dokumentazioa aztertu zen. Proiektua adjudikatuta dago, eta lanak hasi dira. Zerga berezien zati bat bakarrik hartzen du. Beste foru aldundiekin batera egiten ari den lana da hau. Hasiera aurreikuspena 2020a bada ere, zaila izango da zergadunen aitorpenak SILICIEko datuekin egitea. Espezifikazio teknikoak argitaratu dira eta probak egiteko espazioa irekiko da.

Informazio trukea behar du estatuarekin eta beste foru aldundiekin.

Ticket-Bai proiektua

Proiektu pilotua amaitzen ari da beste foru ogasunekin eta Eusko Jaurlaritzarekin garatzen den proiektu pilotu hau. Hiru fase izan ditu: fitxategi kateatua eta sinatua frogatzea; web posta baterako bidalketa frogatzea; eta, azkenik, aldundiek web zerbitzu bat garatzea (zerbitzu bakarra edo partekatua). Plataforma sektoreka ezarriko da Gipuzkoan, eta ezarpen faseak definitu behar dira eta kolektiboak zehaztu.

Ticket BAI Hitzarmena sinatu da, eta haren Jarraipen Batzordeko kideak izendatu dira. Horrek aukera ematen du hitzarmenean aurreikusten diren akordioak martxan jartzeko.

Bestelakoak

- Sinatzeke aplikazioa instalatu da, sinatzeko karpetaaren aplikazio berria.

- Kudeaketa prozedurak aldatu dira Auzitegi Gorenak emandako sententziaren ondorioz. ZFAOren aldaketak 2019ko abuztutik aurrera ditu ondorioak. Une hauetan prozedura eta fluxu guztiak daude dokumentatuta.

- Senda proiektua: SENDA proiektua onartu da, ikuskaritzak beharrezkoa duen tresna.

Helburu honek aurrerapen maila egokia du, Kontua proiektuaren bilakaera aztertu beharra kenduta.

Aurrekontuaren exekuzioari dagokionez, handitu egin da proiektu informatikoetara bideratu den zuzkidura, haren zati bat 2020an exekutatuko bada ere.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Administrazio Elektronikoa. Plan informatikoa. Betebehar fiskalak betetzea, iruzurraren aurkako borroka eta kudeaketa finantzario eraginkorra erraztera bideratutako informazio sistema integratuak garatzea. Zerga proiektua. Kontua proiektua. Big Data proiektua. SII eta Ticket Bai proiektuak. Aurrekontuak, ildo estrategikoak bultzatzeko tresna gisa

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	4.584.652,47	8.088.861,98	4.227.092,74		
1.1 Ekintza Zerga aitorpenak aurkeztu eta kudeatzeko plataforma informatiko berriaren garapena eta ezarpena (Zerga Proiektua: 1. fasea)	1.690.733,65	2.664.246,97	1.626.507,41		100,00
1.2 Ekintza Zergabilketa kudeatzeko soluzio informatiko baten analisia eta garapena (Kontua proiektua)	1.756.144,47	2.475.205,48	981.732,63		100,00
1.3 Ekintza Big Data proiektua	190.814,94	427.181,98	396.386,39		100,00
1.4 Ekintza BIH proiektua. Berehalako informazio-horniduraren sistema	556.144,47	742.975,48	676.990,83		100,00

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
1.5 Ekintza Ticket Bai proiektua.	390.814,94	428.152,07	338.975,48		100,00
1.6 Ekintza SENDIA proiektua		1.351.100,00	206.500,00		100,00

Konpromiso kredituak

	Hasierako konpromiso kredituak	Behin betiko konpromiso kredituak	Etorkizuneko ekitaldietarako konprometitua
Jarduketa ildoak, guztira	13.250.000,00	13.250.000,00	2.000.000,00
1.1 Ekintza Zerga aitortpenak aurkeztu eta kudeatzeko plataforma informatiko berriaren garapena eta ezarpena (Zerga Proiektua: 1. fasea)	8.800.000,00	8.800.000,00	
1.2 Ekintza Zergabilketa kudeatzeko soluzio informatiko baten analisia eta garapena (Kontua proiektua)	2.000.000,00	2.000.000,00	2.000.000,00
1.3 Ekintza Big Data proiektua	900.000,00	900.000,00	
1.4 Ekintza BIH proiektua. Berehalako informazio-horniduraren sistema	750.000,00	750.000,00	
1.5 Ekintza Ticket Bai proiektua.	800.000,00	800.000,00	

Departamentuaren jarduketa operatiboa


Urteko helburua: Zerga obligazioen konplimendua erraztea eta kontrol jarduketak garatzea

Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2019-ko Aurreikuspena	2019-ko Erreala	Agintaldiko helburua
2019ko Zerga Egiaztapeneko Planean Zergabilketako Zuzendariordezari esleituko jardueren gauzatze-portzentajea.	Ehunekoak	0,00	100,00	98,50	100,00
2019ko Zerga Egiaztapeneko Planean Zerga Kudeaketako Zuzendariordezari esleituko jardueren gauzatze-	Ehunekoak	0,00	100,00	109,90	100,00


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2019-ko Aurreikuspena	2019-ko Erreala	Agintaldiko helburua
portzentajea.					
2019ko Zerga Egiaztapeneko Planean Ikuskaritzako Zuzendariordetzari esleituko jardueren gauzatze-portzentajea.	Ehunekoa	0,00	100,00	102,70	100,00

Joera


2019ko Zerga Egiaztapeneko Planean Zergabilketako Zuzendariordetzari esleituko jardueren gauzatze-portzentajea. – Ehunekoa



2019ko Zerga Egiaztapeneko Planean Zerga Kudeaketako Zuzendariordetzari esleituko jardueren gauzatze-portzentajea. – Ehunekoa



2019ko Zerga Egiaztapeneko Planean Ikuskaritzako Zuzendariordetzari esleituko jardueren gauzatze-portzentajea. – Ehunekoa



Memoria

Zerga obligazioak betetzea errazteko, hauek garatu dira:

